

32. ADITZ MORFOLOGIA

Aditz morfologiaren alderdi batzuk aurkezteko egin dugun atal honetan aspektuen erabilera eta aditz jokatuaren taulak emango ditugu. Gurea behar orokorra izanik, ez dugu landu gura izan atal hau sakonki, izan ere, denbora osoa emango genuen egiteko honetan; paradigmak osatzeko Gaminderen¹ (1985) eta Yrizarren² (1992) lanak oinarritzat hartu ditugu gure oraingo inkestetan agertu diren adizkiekin hornitu eta aberastu baino ez ditugu egin hango lanak.

32.1. ASPEKTUAK

Ataltxo honetan aspektu ez-burutua eta geroa egiteko erabiltzen diren baliabideak aurkeztuko ditugu

Aspektu ez-burutuaren alomorfoak **TEN**, **TTEN**, **ETAN** eta **TZEN** dira. Alomorfo bakoitza aditz partizipioaren amaieraren arabera aukeratzen da. Jarraian bakoitzaren erabileraren adibide batzuk emango ditugu:

-TEN

Morfema hau partizipioaren ondoko amaieren arabera aukeratzen da:

-N: *ixaten, esaten, emoten, eruten, juten, egoten, jaten*, e.a.

-I: *erosten, irabasten, etorten, ebaltzen, ikusten, isten, josten, ekarten*, e.a.

-A: *etaten, botaten*

-O: *joten, jadxoten*

-Eren kasuan, desimilazioz, **TAN** erabiltzen da: *erretan, betetan, gordetan*.

-TTEN

Hau aurrekoaren aldaki bat besterik ez da, hots, «t»ren aurrean «i» bat dagoenean palatalizatu egiten da: *eitten, eukitten, ibiltten, irakitten, ipintten, ereitten, ebaitten, illten*, e.a.

¹ Gaminde, Iñaki (1985): Aditza Bizkaieraz. UEU, Iruña.

² Yrizar, Pedro de (1992) Morfología del verbo auxiliar vizcaino. Euskaltzaindia, BBK; Bilbo.

-ETAN

Aditz partizipioa «au» amaieraduna denean, orduan alomorfo hau erabiltzen da: *pasetan, akabetan, gobernetan, toketan, allegetan, apartetan, pentzetan, gustetan, topetan*, e.a.

-TZEN

Alomorfo hau «tu» edo «du» amaieradun partizipioekin erabiltzen da: *berotzen, sartzen, geratzen, ixotzen, artzen, garbitzen, mogitzen, arrotzen, kentzen, osatzen, sikatzen, beratzen, sendotzen*, e.a.

Geroaldiaren aspektua egiteko «ko» erabiltzen da: *etorriko, euko, kantauko, akordauko, topauko, moztuko, botako, kanbidxauko, ikusiko*, e.a. Partizipioa «n» amaieraduna denean, orduan «go» erabiltzen da: *urtengo, jango, ixango, esango, emongo*, e.a.